

## OSASUN SAILA

2809

AGINDUA, 1992ko urriaren 6koa, Osasun Sailburuarena, HIESari Aurrehartzeko eta hori Kontrolatzeko Egitasmoaren Aholku-batzordeen osakera eta egitekoak zehazten dituena.

Euskal Autonomi Elkartearen 1992rako Aurrekontu Nagusiak onartzen dituen 1/1992 Legearen aurrikuspenen arabera, Osasun Sailaren ihardute-egitura ezartzen duen 217/1992 Dekretuak egitura horren barruan sartzen du HIESari Aurrehartzeko eta hori Kontrolatzeko Egitasmoa, eta ahalmena ematen dio Sailburuari Egitasmoaren Zuzendaritza-batzordearekin batera lanean jardungo duten Aholku-batzordeen osakera eta egitekoak zehazteko.

Horiek horrela,

## XEDATU DUT:

1. *atala.*— Hona hemen HIESari Aurrehartzeko eta hori Kontrolatzeko Egitasmoaren garapenean laguntzeko Aholku-batzordeak:

- 1.— Laguntza klinikorako Aholku-batzordea.
- 2.— Aurrehartzeko eta Gizarte-arazoetarako Aholku-batzordea.

2. *atala.*— Laguntza klinikorako Aholku-batzordeak lehendakari bat, idazkari bat eta gehienez ere hamalau bokal izango ditu.

Kide horiek denak Osasun Sailburuaren proposamenez izendatuko dira. Dena den, Euskadiko Medikuen Elkargoek, Euskadiko OLT-DUEDen Elkargoek eta Odontologoek Elkargoek bokal bana proposatuko dute.

3. *atala.*— 1. Hona Laguntza klinikorako Aholku-batzordeak garatuko dituen egitekoak:

- a) GIBak eragindako zoltasunaren eta horri loturikoen arazo klinikoak eta laguntza-mailakoak aztertzea eta ebaluatzea.
- b) GIBa duten gaisoen zaintzarako diagnostiko eta terapeutika protokoloak gauzatzea.
- c) Osasun-eremuan GIBaren zabalkundeari aurrehartzeko aholkuak gauzatzea.
- d) Gaisoentzako hezkuntza eta aholku ekintzak sustatzea.
- e) Osasun-eremuan GIBari buruzko ikerketarako bideak proposatzea eta ebaluatzea.
- f) Osasun-langileentzako prestakuntza-programak garatzea.
- g) Eta orokorrean, osasun-eremuan GIBaren zoltasunari loturiko gai guztiak aztertzea eta garatzea.

2. Aldin-aldian, eta gutxienez urtean behin, ondorioak eta gomendioak jasoko dituen dokumentu bat egingo du, gero Egitasmoaren Zuzendaritza-batzordeari bidaltzeko.

4. *atala.*— Aurrehartzeko eta Gizarte-arazoetarako Aholku-batzordeak lehendakari bat, idazkari bat eta gehienez ere 14 bokal izango ditu.

Kide horiek denak Osasun Sailburuak izendatuko ditu; dena den, Euskadiko Farmazilarien Elkargoek, Giza Eskubideen aldeko Euskal Herriko Elkarteak, HIESaren aurkako Herritarren batzordeek, Drogomen-

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2809

ORDEN de 6 de octubre de 1992, del Consejero de Sanidad, por la que se determina la composición y funciones de las Comisiones Asesoras del Plan para la Prevención y Control del Sida.

De conformidad con las previsiones de la Ley 1/1992, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1992, el Decreto 217/1992, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Sanidad, incardina dentro de éste el Plan para la Prevención y Control del Sida, y autoriza al Consejero de Sanidad para determinar la composición y funciones de las Comisiones Asesoras que deben colaborar con el Comité Directivo del Plan en el desarrollo de sus funciones.

En virtud de lo expuesto,

## DISPONGO:

*Artículo 1.*— Las Comisiones Asesoras de apoyo para el desarrollo del Plan para la Prevención y Control del Sida son:

- 1.— La Comisión Asesora Clínico-Asistencial.
- 2.— La Comisión Asesora Preventiva y Social.

*Artículo 2.*— La Comisión Asesora Clínico-Asistencial estará compuesta por 1 Presidente, 1 Secretario y un máximo de 14 Vocales.

Todos ellos serán nombrados por el Consejero de Sanidad si bien, uno de los vocales lo será a propuesta de los Colegios de Médicos de Euskadi, otro a propuesta de los Colegios de ATS-DUE de Euskadi y otro a propuesta de los Colegios de Odontólogos.

*Artículo 3.*— 1. La Comisión Asesora Clínico-Asistencial desarrollará las siguientes funciones:

- a) Análisis y evaluación de la problemática clínica y asistencial de la infección producida por el VIH y de las infecciones asociadas.
- b) Elaboración de protocolos diagnósticos y terapéuticos a seguir en la atención de los pacientes infectados por el VIH.
- c) Elaboración de recomendaciones para prevenir la transmisión por el VIH en el medio sanitario.
- d) Promoción de actividades de educación y asesoramiento dirigidas a los pacientes.
- e) Propuesta y evaluación de líneas de investigación sobre VIH en el medio sanitario.
- f) Desarrollo de programas de formación dirigidos a personal sanitario.
- g) Y en general, el análisis y desarrollo de todas las cuestiones relacionadas con la infección por el VIH en el ámbito sanitario.

2. Periódicamente, y al menos una vez al año, elaborará un documento de conclusiones y recomendaciones para su remisión al Comité Directivo del Plan.

*Artículo 4.*— La Comisión Asesora Preventiva y Social estará compuesta por 1 Presidente, 1 Secretario y un máximo de 14 vocales.

Serán nombrados por el Consejero de Sanidad si bien, uno de los vocales lo será a propuesta de los Colegios Farmacéuticos de Euskadi, otro a propuesta de la Asociación Pro Derechos Humanos del País

petasunen Idazkaritza Nagusiak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bokal bana proposatuko dute.

**5. atala.** - 1. Hona Aurrehartze eta Gizarte-arazoetarako Aholku-batzordearen egitekoak:

a) GIBaren zabalkundeari aurrehartzeko ekintzak proposatzea eta ebaluatzea.

b) HIESari aurrehartzeko gomendio bereziei dagokienez, osasun sustapenerako eta hezkuntzarako programetan sartu beharrekoak gauzatzea.

c) GIBaz zoldutakoek bereizkeriarik ez izateko eta beren eskubideak bermatzeko gomendioak gauzatzea.

d) HIESari aurrehartzeko eta horren gizarte-mailako eremuetan ikerketa-bideak proposatzea eta ebaluatzea.

e) HIESari loturiko arazoetan, zuzenean nahiz zeharka, zerikusirik duten taldeentzako eta profesionalentzako prestakuntza-programak garatzea.

f) HIESaren eragina aztertzea bai epidemiologia mailan bai gizarte-ekonomiakoan.

g) Eta orokorrean, aurrehartze, gizarte, lege, etika eta HIESarekin zerikusirik duten bestelako alderdi guztiak.

2. Aldian-aldian, eta gutxienez urtean behin, ondorioak eta gomendioak jasoko dituen dokumentu bat egingo du, gero Egitasmoaren Zuzendaritza-batzordeari bidaltzeko.

**6. atala.** - 1. Bi Aholku-batzordeok lehendakarien deiaz bilduko dira, sei hilabetean behin gutxienez.

2. Bileretara Egitasmoaren koordinatzailea eta aztertzeako diren gaien arabera berriaz deitu daitezkeen gainerako pertsonak bertaratuko dira.

**7. atala.** - Aholku-batzordeetako kideek ez dute ordainsaririk jasoko beren eginkizunak betetzeagatik, egoki lekizkiekeen egun-sari eta kalte-ordainen kaltean gabe.

AZKEN XEDAPENA.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko urriak 6.

Osasun Sailburua,  
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

Vasco, otro a propuesta de las Comisiones Ciudadanas Anti Sida, otro a propuesta de la Secretaría General de Drogodependencias y otro a propuesta del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**Artículo 5.** - 1. La Comisión Asesora Preventiva y Social desarrollará las siguientes funciones:

a) Propuesta y evaluación de las actuaciones de prevención relacionadas con la transmisión del VIH.

b) Elaboración de las recomendaciones específicas sobre prevención del Sida a incorporar en los programas de promoción y educación sanitarias.

c) Elaboración de recomendaciones para garantizar los derechos y evitar la discriminación de las personas infectadas por el VIH.

d) Propuesta y evaluación de líneas de investigación en los campos preventivo y social del Sida.

e) Desarrollo de programas de formación dirigidos a colectivos y profesionales implicados, directa o indirectamente, en la problemática asociada al Sida.

f) La evaluación del impacto del Sida tanto en su vertiente epidemiológica como socio-económica.

g) Y en general, todos los aspectos relativos a los aspectos preventivos, sociales, legales, éticos, y de otro tipo que estén relacionados con el Sida.

2. Periódicamente, y al menos una vez al año, elaborará un documento de conclusiones y recomendaciones para su remisión al Comité Directivo del Plan.

**Artículo 6.** - 1. Ambas Comisiones Asesoras se reunirán a convocatoria de su Presidente y al menos una vez al semestre.

2. A sus reuniones asistirá el Coordinador del Plan y aquellas otras personas que específicamente puedan ser convocadas en función de las cuestiones a tratar.

**Artículo 7.** - Los miembros de las Comisiones Asesoras no percibirán retribución alguna por el ejercicio de sus funciones, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que les puedan corresponder.

DISPOSICION FINAL.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 1992.

El Consejero de Sanidad,  
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.